

OARSOALDEKO BERPIZTU IKAS FAKTORIA PROIEKTUAK NAIDERREN LAGUNTZA DU

Posted on 02/02/2023 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Aprendizaje activo](#), [Conceptualización de infraestructuras](#), [Promoción económica local y territorial](#)

Naiderrek Oarsoaldea Garapen Agentzia laguntzen du Berpiztu Ikas Faktoria proiektua gauzatzen, eskualdean trebakuntza proiektuak garatzeko aukera paregabea.

Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko BERPIZTU (2020-2024) programaren esparruan, eta **2017-2025 aldirako Eskualdeko Plan Estrategikoan** jasotako jarduerekin lerrokatuta, hainbat proiektu garatzen ari dira Oarsoaldean, besteak beste, **Habian Berrikuntza Gunea** eta Gizarteratzeko eta Laneratzeko Gunea. Bi proiektu estrategiko horiek azpiegitura eta aktibo berriak abian jartzea ekarriko du; besteak beste, **zibersegurtasunaren, elektromugikortasunaren eta osasunaren** arloko gaitasunak garatzeko ikaskuntza-laborategiak eta enplegurako, laneratzeko eta gizarteratzeko esperientziazio- eta berrikuntza-zentroa. Azpiegitura berri horiek eskualdearentzat garrantzitsuak diren beste esparru batzuei lotuta dauden beste azpiegitura batzuei gehitzen zaizkie, hala nola ekonomia urdinari, elikagaien industriari eta kultura- eta sormen-industriei.

Testuinguru horretan, **Ikas Faktoria** sortu da. **Konektatutako ekipamendu-sare** horri instalazio publiko eta eskualdeko enpresa berriak gehitu ahal izango zaizkio, hainbat espezializazio interesgarriren inguruan, langabeei, ekintzaileei eta enpresa-sare osoari lehiakortasunaren bidean laguntzeko, beren jarduerari eta enpleguei eusteko.

Ikas Faktoriaren ikuspegi estrategikoa eta irismena, esparru-baldintzak, garatu beharreko gaitasunen mapa, proiektuaren helburu estrategikoak eta 2023-2026 eredu operatiboa definitzen eta ezartzen laguntzen du Naiderrek, ikaskuntza aktiboko azpiegituren kontzeptualizazioan eta diseinuan duen esperientziazio abiatuta, Oarsoaldean bertan sartuta.

Irudi nagusia: Iñaki Queralt

